

IRAKASGAIAREN IZENA

Hizkuntza II: Euskararen araua eta erabilera

TITULAZIOA:

KAZETARITZA

GAITASUNAK:

- 1. gaitasuna.** Komunikazio alorreko profesionalek hizkuntzen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea
- 2. gaitasuna.** Intuizio, esperientzia eta zalantza linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea, hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia jomugan
- 3. gaitasuna.** Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea, hizkuntza-baliabideen formari, esanahiari eta erabilerari buruzko informazioa lortzeko

GAI ZERRENDA

- 1. Euskararen testuinguru soziolinguistikoa**
 - 1.1. Euskarazko komunikabideen xede-taldea eta potentziala
 - 1.2. Komunikabideen eginkizuna euskararen biziberritzean
 - 1.3. Komunikabideen eginkizuna euskararen corpus plangintzan
- 2. Euskararen kalitatea: aldagai nagusiak**
 - 2.1. Euskararen erabilera komunikatiboaren funtsak
 - 2.2. Euskararen arauen iturriak
 - 2.3. Euskararen aldakortasuna komunikabideetan
- 3. Euskara zaindu orokorra: gida-lerro nagusiak**
 - 3.1. Euskaltzaindiaren araugintza: arauak eta hiztegi batua
 - 3.2. Euskara estandar zainduaren estiloa: iturriak eta irizpideak
 - 3.3. Komunikabideen ekarpena: estilo-liburuak

AMAIERAKO SOSLAIA

- Komunikazio profesionalaren abiapuntua den hizkera estandarraren irizpide eta arauen ezagutza nahikoa.
- Hizkuntza-baliabide egokiak bereizteko gaitasuna, beti ere, komunikazio-egoeraren parametroak kontuan izanda, bereziki komunikazioaren alorrean garrantzi handiagoa dutenak: hartzailea, gaia, euskarria, helburua.
- Komunikazio-ekintzen hartzaileen ezaugarriak antzemateko ahalmena, eta horien arabera hizkuntza-baliabide egokiak hautatzeko trebetasuna.
- Gaiak baldintzatutako hautu linguistikoak egiteko estrategiak.
- Ahozko eta idatzizko diskurtsoen ezaugarriak antzemateko ahalmena, eta horien arabera hizkuntza-baliabide egokiak hautatzeko trebetasuna.
- Komunikazio-helburu desberdinetarako komunikazioaren alorrean finkatuta dauden genero eta erregistro desberdinen ezaugarriak antzemateko ahalmena

EBALUAZIOA ⁽²⁾ Jarri "x" erabiltzen dituzun aukeretan

- Gelako lanak:** 0-4,5 puntu.
 - Sintesi-fitxak: 1,5 puntu.
 - Mintegiak: 1,5 puntu.
 - Hizkuntza-ariketak: 1,5 puntu.
- Banakako lana(k):** 0-1,5 puntu (bakoitzak)

- Liburu baten iruzkina (3 orrialde)
- Behaketa-lana (3 orrialde)
- Saiakera kritikoa (3 orrialde)

□ **Azterketa proba:** 0-4 puntu

- Galdera teoriko bat (1 puntu)
- Testu-iruzkin bat (1 puntu)
- Aukera anitzeko galdetegia: 100 galdera (2 puntu)

Modalitateak (aukerak)

A aukera. Gelako ariketak + lan bat + azterketa-proba

B aukera: Lau lan + azterketa-proba

C aukera: azterketa-proba

BIBLIOGRAFIA:

Oinarrizko bibliografia (gehienez 10 titulu)

- Aranbarri, I., 2006. *Hizlandia*. Mundua prentsaren judasetik. Susa.
 Arrarats, I. (zuz.), 2006. *Berria. Estilo liburua*. Berria.
 Garro, L., 2005. *Ez merkeenak, bai onenak!* Argia.
 Larrinaga, A., 2007. *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II*. EITB
 Salaburu, P., 2002. *Euskararen etxea*. Alberdania.
 Sarasola, I., 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania.
 Zuazo, K., 2005. *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Elkar.
 Zubimendi, J.R. eta Esnal, P., 1993. *Idazkera-liburua*. Eusko Jaurilaritza.
 Zubimendi, J.R., 1995. *Jokaera-liburua. Euskara, kultura, estiloa eta komunikazioa*. Sendoa.
 Zubimendi, J.R. eta Esnal, P., 1997. *Irakurbideak. Irakurgai klasikoak eta herri-literaturakoak argi eta garbi euskara batuan*. Sendoa.

Interneteko helbide garrantzitsuak (gehienez 5)

- <http://www.euskara.euskadi.net>
<http://www.euskaraz.org/>
<http://www.euskaltzaindia.net>
<http://www.ehu.es/ehulku/>
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2243/eu/contenidos/informacion/xtra_euskara_erabili/eu_16011/erabili_euskara.html

- (1)
- **Eskola magistrala:** irakasgaiaren eduki teorikoa klasean azaltzea
 - **Arazo eta egoerak konpontzea:** klasean guztien artean egiteko ariketa praktikoak
 - **Laboregiko praktikak:** fakultatean praktiketarako dauden gelak eskoletarako erabiltzea (platoak, erredakzio gelak, ordenadore gela, bideoteka...)
 - **Landa praktikak:** erakundeak ikustera joatea, irakasgairako interesgarria izan daitezkeen lekuetara joatea (erakusketak, komunikabideak...)

- Lanak ahoz azaltzea, irakurketak... Ikasleek banan-banan edo taldean egindako lanak azaltzen dituzte klasean.
- Talde lana klasean: ikasleek taldean egiten dituzte irakasleak emandako lanak.
- Praktikak: klasean egindako praktikek azken ebaluaziorako balio dute.
- ⁽²⁾ • Klasean egindako aurkezpenek, irakurtaldiek... azken ebaluaziorako balio dute.